

# LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1 h 45 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira.</li> <li>• Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 900 hitz gehienez.</li> </ul>	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ariketa bakarra egin behar duzu, eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	70 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

## 1. ariketa

**Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.**

Markatu testuko hutsuneak betetzeko (1, 2, 3...) zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera** dago.

## BIZI ARTIFIZIALA ETA HAREN ONDORIOAK

Aspaldiko ideia da bizia artifizialki sortzea, baina lehen saio zientifikoak joan den mendekoak baino ez dira. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, bide berriak ireki zituzten zibernetikak eta ordenagailuen garapenak, eta horietatik sortu zen, 80ko hamarkadan, C. Langtonek bizi artifiziale deitu zion lan-arloa. **1**. Eraitza interesgarriak lortuagatik, beste bide batzuetatik jo dute, berriki, bizia fabrikatzeko ahaleginek biologian; eta diziplina berri bat ere sortu da, biologia sintetikoa esaten zaiona.

Biologia sintetikoak bi ikerketa-lerro ditu. Batak, izaki bizidun naturaletatik abiatuta, haiek guztiz birdiseinatzea bilatzen du, izaki erabat desberdinak sortzeraino. Besteak, berriz, osagai eta sistema kimiko hutsetatik abiatuta, sistema integratu konplexuak garatu nahi ditu, ezaugarri biologikoak izango dituztenak. **2**.

Horrek esan nahi du makina bat osagai giltzatu behar direla modu egoki eta zehatzean, baina ez soilik hori; sistema horrek irauteko gai izan behar du, baita kondizio aldakorretan ere. **3**. Bestela esanda, berezko autonomia edukitzea da kreazio artifiziale horren berezitasuna (eta paradoxa): asmatutako sistema hori bizidun bat dela onartzeko, bere kabuz eta beretzat egin behar ditu gauzak. **4**.

Biziaren antolamendu naturalean halako esku-hartze sakona egiteak ekar ditzakeen arriskuak handiak dira. Gaur egun badakigu zein estu dauden erlazionatuta elkarren artean izaki bizidun guztiak, eta zein konplexuak diren haien arteko erlazioak. Egia da xehetasunez aztertzen ditugunean mekanismo konplikatuena forma hartzen dutela sistema bizidunek, zeinetan zati bakoitzak ondo mugatutako funtzio bat betetzen baitu; hortaz, espezifikoki eta lokalki eragiteko modukoak lirateke. **5**. Oso sistema konplexuekin ari gara lanean, eta hori da arriskua, ez baitakigu ongi zein diren gure ekintzen zehar-ondorioak.

MORENO, A. *Elhuyar aldizkaria*. 2009-12-01.  
Egokitua

### 1. ariketa. Txertatu testu zatia

**OHARRA:** Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A. Sortuko diren sistemak gure obra izango dira, bai; baina, aldi berean, haien burua ere sortuko dute, eta, nolabait, ihes egingo dute gure eskuetatik.
- B. Bizidunen ezaugarriak zituzten sistemak sortzea zen bizi artifiziala, horretarako oinarritzko beste material batzuk erabilia: eboluzionatzeko, erreproduzitzeko eta abarrerako gai ziren ordenagailu-programak, eta baita robot autonomo eta ebolutiboak ere.
- C. Edonola ere, bizidun naturalen antolamendua eraldatzea baino gehiago bizi-forma erabat berriak sortzea da biologia sintetikoaren benetako helburua, kasu batean, zein bestean.
- D. Hori egiteko, ezinbestekoa da diziplinen arteko ikuspegi globalarekin jokatzeko, giza bizimoduaren oinarritzko alderdi askori eragiten baitio aldaketak.
- E. Esan nahi du, beraz, ez bakarrik antolatutako forma bat sortzea, baizik eta lortu behar dela, behin asmatuta, forma horrek bere burua antolatzea, irautea, eta eboluzionatzea; horiek baitira, azken batean, materia biziaren propietateak.
- F. Baina ikuspegia aldatu eta organismoari globalago begiratzen diogunean, zati horiek guztiak integratuta agertzen zaizkigu, unitate organiko bakar bat osatzen dute, eta ezinezkoa da unitate bakar horretan aldaketak lokalizatzea.

■ Idatzi dagokion letra ondoko lauki hauetan:

<b>Hutsuneak</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
<b>Testu zatiak</b>					

**Soberakoa**

**OHARRA:** Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrrian.

## 2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### AURORA

Gutunetan sinesten duen lagun batek bidalitako postalean *Aurora* korazatuaren irudia azaltzen zen, eta «1917» gorriz. Planifikatuta zegoen bezala, *Aurora* itsasontziaren kanoikada batek markatu zuen Neguko Jauregiaren hartzearen hasiera Petrograden. «Ehun urte, eta oraindik honelakoetan sinesten al diraugu?», galdetzen zidan lagunak. Zertan sinetsi, ordea, matxinada-iraultzan edo sozialismorako bidean?

Matxinadaren epikaren fetitxistek sarri jaramon gutxi egin ohi diete baldintza historikoei eta baldintza subjektiboen eta politikoen eraikuntzari. Teilatuan bandera jartzearen uneari erreparatzen diote, etxea eraikitzeke esfortzua gutxietsita. Urriko matxinadak egun gutxiren bueltan boterea langileen esku utzi zuen arren, ezin daiteke abstraitu gutxienez 12 urte lehenago hasi zirela mamitzen baldintzak. Altxamendura iritsi ahal izateko, luzez lan eta jardun politiko zabala egin behar izan zuten. Langile, nekazari, populazio eta soldaduen artean komunikazioa, formazioa, eztabaida eta konbentzitzeko esfortzua. Gainera, horrelako gertaerak historiaren une oso zehatzetan gerta daitezke, non bektore ezberdinak gurutzatzen diren. Azkenik, matxinada hori arazo sozial eta politiko larri zehatzen aurreko erantzun praktikoa izan zen, programa osatzen zuten lau elementu nagusiek erakusten duten bezala: errepublika demokratikoa, zortzi orduko lanaldia, nekazaritza erreforma, eta Alemaniaren aurkako gerraren amaierako bide diplomatikoa. Puntu bat ere ez zen sozialista berez.

Iruditzen zait sozialismoaren inguruko formulazio asko, ia-ia boterea eskuratzeko forma instrumentaletan soilik zentratzen direla, eta neurri horren arabera eraldakuntza-prozesu zein dinamika sozialen ebaluazioa egiten dela. Bitartean, sozialismoaren alderdi utopikoa bigarren mailan uzten da; alegia, klaserik eta zapalkuntzarik gabeko eredu postkapitalistaz –desorekak gaindituko dituen– eta gizakiaren potentzialtasunak askatzeko aukeraz mintzatzen den edukia. Marxismo petrifikatua gogor kritikatu izan dute bai korronte feministek, bai ingurumenaren pentsalariek, bai garapenaren ikuspegi humanistek. Horrek guztiak utopia sozialista eguneratzeko eta aberasteko formulazioa ekarri du. Nazio zapalduen askapenerako prozesuak ortodoxian ez erortzeak ere lagundu du. Utopien indarra berreskuratu eta eraldaketa-dinamiken lehen planora ekarri beharra dago. Baina utopiak gertuago daude, baldin eta bitarteko egitasmo eta oinarri gauzagarriak ezartzen badira. Hots, funts material, ekonomiko eta produktiboen gainean finkatu behar da utopia. Eta horretan balizko sozialismo-egikaritzeek ahuldadea eta egitasmo utopikoarekiko desbiderapen nabarmenak erakutsi dituzte.

Antsietateak baretu eta ikuspegi historikoari eusteko analogia bat ekar daiteke gogora. Feudalismoetik kapitalismorako ibilbidea ez zen egun bakarrean gertatu. Ez zen XVII. eta XVIII. mendeetan Londres-Amsterdam-Paris triangeluaren istant batean piztu. Hiru mende lehenago kapitalismoaren lehen formak azaldu ziren Italiako hiri batzuetan eta porrot egin zuten. Hiru mende itxaron behar izan zen kapitalismoa sistema nagusi bezala hedatzen ikusten hasteko. Hasierako esperientzia horiek gabe, ordea, pentsaezinak lirateke egungo kapitalismoaren forma helduago hauek.

Azken garaiotan, ordea, kapitalismo finantzario parasitarioak menderatu du kapitalismo industrialia. Horren ondorio dira azken hamarkadetan finantza-krisiak biderkatu izana munduan. Azken krisiak munduaren zentroa bederatzi urteko krisian murgildu du, eta egoera okertuko den zantzuak daude. Ikusteko dago kapitalismoa parean dituen erronkei aurre egiteko gai izango den, edo erlazio produktibo eta sozial kapitalistak oztopo bilakatuko diren indar produktiboaren bilakaerarako. Une horiek bereziak izan daitezke, Karl Marxen arabera, une horietan zabaltzen baitira iraultza sozialerako aroak.

Baina E egunaren zain egon beharrean, egunero eraldaketa sozial, politiko eta ekonomikorako baldintzak egosi daitezke. Premisa horren gainean badago baldintza, egitasmo, eredu berri edota konkistak eraikitzeke aukera ugari esparru ugarian: kontsumo-ereduetan, gobernantza-eredu inklusiboetan, enpresetako eredu parte-hartzaile eta demokratikoetan... Ez dago zertan Neguko Jauregia hartzeko unea markatuko duen kanoi hotsaren zain egon. Egia esan, aspaldian utzi genion danbadaren zain egoteari, akaso konturatu gabe.

**GARMENDIA, J. Naiz. 2017-12-17.**  
 Egokitua

## 2. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 6. Postalean erreparatzean, zerk eragin dio harridura Garmendiaren lagunari?

- a) Orain dela ehun urteko kontuaz aritzeak.
- b) Gezurretan oinarritutako ekintza historikoa aipatzeak.
- c) Matxinada-uneari demaseko garrantzia aitortzeak.

### 7. Matxinadak direla eta, zer dio Garmendiak?

- a) Onik ateratzeko, ezinbestekoa dela momentu historiko aproposa aukeratzea.
- b) Eragile eta faktore askoren ondorio dela arrakasta.
- c) Egindako ahalegina politikak baldintzatua dagoela.

### 8. Zer leporatzen dio Garmendiak Sozialismoari?

- a) Idealetatik aldentuta jardutea.
- b) Boterea eskuratzeko erabilitako estrategia okerra.
- c) Utopia sobera idealizatzea.

### 9. Krisien inguruan egindako hausnarketari erreparatuta, zer iradokitzen du testuak?

- a) Krisiak iraultza sozialerako akuilu izan daitezkeela.
- b) Kapitalismoa dela munduan sortzen diren krisien erantzule.
- c) Kapitalismoak duela giltza gaur egungo krisiei aurre egiteko.

### 10. Zertaz ohartarazi nahi gaitu Garmendiak?

- a) Iraultza gauzatuko bada, jakin egin behar dela une aproposari erreparatzen.
- b) Iraultza-bideak eta eguneroko lanak berebiziko garrantzia dutela.
- c) Iraultza ametsa baino ez dela, eta aspalditik dakigula hori.

### **Ariketa:** Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.  
**Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
  - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
  - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
  - Ezin dituzu hitzez hitz kopia lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

### **Oharrak**

- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik**.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
  - Euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA AIPAMENEN OSTEAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

## TESTU AIPAMENAK

**1.**

### UKO EGITE HANDIA

Estatu Batuetan bakarrik, 50 milioi langile inguruk eman zuten dimisioa 2021ean; era horretara salatu zuten soldata errealak izoztea. Uko Handia deitu zaion mugimendu hori inoizkorik indartsuen dago mundu osoan; ez, ordea, Espainian.

Adeccok egindako txosten baten arabera, aurretik beste enplegurik lortu gabe, langileen % 5ek bakarrik du Espainian bere egungo egoerari uko egiteko asmo sendoa. Eta, soldata den arren lana uzteko lehen eragilea Espainian eta mundu osoan, Espainiako langileen % 38k soilik uste du merkatuaren arabera dagokiona baino gutxiago kobratzen duela, eta, hala ere, ehuneko hori bere lanpostuarekin pozik dago beste arrazoi batzuegatik, hala nola osasuna, segurtasuna eta ongizatea. Atzerrian bestelakoak dira horien ordeztuak lehenesten dituzten arrazoiak, lan-giroa eta lanbide-garapena hurrenez hurren.

**ARANA, I. *Cinco Dias*. 2022-02-09.  
 Egokitua**

**2.**

### KONTZIENTZIA ERAGOZLEAK

Europak abortuaren aldeko legedia aurrerakoiena duen arren, beste zenbait arazorekin topo egiten dute emakumeek: abortatzeko baliabideen faltarekin.

Herrialde batzuetan, besteak beste Italian eta Espainian, abortua legeztatuta dago, baina hutsuneak daude hura gauzatzeko baliabideetan.

Hori gutxi ez, eta Italian kontzientzia-eragozleak daude; alegia, abortatzeko eskubidea gauzatu behar dutelarik, haien pentsamoldea dela medio, abortatzeko prozesuan parte hartu nahi ez dutenak. Italian, ginekologoek % 70 dira kontzientzia-eragozleak.

Ondorioz, herrialde horretan abortatzea erabaki duten emakumeek kasik ez dute horretan lagunduko dien medikurik.

**IGLESIAS, Z. *Berria*. 2022-07-06.  
 Egokitua**

**3.**

### ABSTENTZIOA, POLITIKAREN KRISIAREN SINTOMA?

Abstentzionistak pobregoa, gazteagoak eta ezkertiaragoak dira. Abstentzionista orokorraren profila azken urteetan honako hau da: pertsona gaztea, errenta baxukoa eta ikasketak dituen.

Gero eta irudipen handiagoa dago politikariak ez direla gai erdi-mailako herritarrari erantzunak edo irtenbideak emateko. Politikak gero eta espazio erabakitzaile estuagoetan jarduten duen pertzepzioa dago.

Egia da politikariek eta estatuak zentralitatea galdu dutela eta globalizazioak estatu-nazioen gaitasuna murriztu duela, baina gezurra da horiek jada ez dutela axola. Izan ere, pandemiak geroztik korronte neoestatista bat sortu da, Estatu aldarrikatzen duena eta haren erabateko gaurkotasuna eta beharra mahai gainean jartzen duena.

**AIZPURU, M. *Noticias de Alava*. 26-06-22.  
 Egokitua**

4.

### NAHIKO SEGURUA

Segurtasuneko sailburuak adierazi duenez, 2019ko datuekin alderatuta, kriminalitatea gora egiten ari da Euskadin, eta sexu-delituek jasan duten igoera nabarmendu du (% 50). Baina lesio-delituek ere gora egin dute EAE osoan: arma zuriekin egindako borrokak, indarkeria eta larderiazko ondarearen aurkako delituak... Horrekin batera, Internet bidezko delituak nabarmendu ditu “izugarri hazi baitira, batez ere iruzurra, nortasunaren ordezkapena eta jazarpena”.

Hala ere, Europako beste herrialde batzuen aldean, Euskadi nahiko segurua dela ziurtatu du, eta Europako batez bestekoaren azpiko indizeak dituela delitu larrienen kasuan.

Erkorekaren iritziz, kriminalitatearen hazkunde horren konponbidea ez dago Ertzaintzaren plantilla handitzean, baizik eta “beste lanbide-profil baterantz eboluzionatu behar duen prestakuntzan”.

**ATXUTEGI, A. Deia. 22-09-15.**  
Egokitua

5.

### MINAREN ETA TRISTURAREN KONPONBIDEA

Milaka pertsona hiltzen dira urtero droga-gaindosiaz, eta horietako askori mediku batek agindu zizkion lehendabizikoz analgesiko opioide legalak, minari aurre egiteko.

Minaren eta tristuraren medikalizazioa jarri ditu jomugan auzi honek. Analgesikoak, antsiolitikoak eta antidepressiboak ohikoak dira minak eta osasun mentaleko ondoezak tratatzeko. Modu isilean hedatzen ari dira gizartean, eta ez dakigu zer ondorio izango dituen halakoak epe luzean hartzeak.

Mendekotasunak eta heriotzak ez dira ondorio bakarrak. Atzean, askoz ere sotilagoa den gai bat ere badago: mina eta emozioak adieraztea da gorputzak hitz egiteko duen moduetako bat. Zer ari gara isilarazten?

**LABAKA, A. eta SAENZ, M. Elhuyar aldizkaria. 2021-03-01.**  
Egokitua

6.

### ESPAZIOAREN EKOLOGIA

Lurraldearen gaineko politikak, hirigintza-planek eta espazio publikoaren diseinuak ekarri dute hein handi batean egoera kaotikoagoa pandemia eta beroaldia igarotzeko unean, eta gizartea ohartu da espazioak zenbateraino baldintzatzen duen gure bizitza.

Arazoaren erdian gaudenean, arkitekturak eta hirigintzak lehen mailako garrantzia hartu dute, egiturazko gaiak lantzen dituztelako: etxeak, kaleak, azpiegiturak, lurzoruen erabilerak orain eta etorkizunean. Istripu bat ezin da aurreikusi, baina badugu lurraldearen errealitate fisikoan eragiteko esparrurik.

Ez dakit zer datorkigun, baina ingurune espazial osasuntsuago eta erresilienteagoa lortzeko helburuak ez luke etorkizunaren bola magikoaren baldintzapean egon behar.

**IRURETAGOIENA, U. Gaur8. 2022-07-22.**  
Egokitua



**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «BIZI ARTIFIZIALA ETA HAREN ONDORIOAK»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.
Testu zatiak	B	C	E	A	F

Soberakoa	D
-----------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «AURORA»

6.	C	7.	B	8.	A
9.	A	10	B		